



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Izan zirkularra eta zaindu zure ingurunea

Batxilergoa

ARLOA/IKASGAIA: Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak

Inguratzen gaituen mundua ulertzea da hura zaintzeko lehen urratsa.

Esperientzia honekin, ikasleek funtsezko bi ideia landuko dituzte: ekonomia zirkularra eta naturguneen berreskurapena. Klima-aldaketaren aurrean erantzun zehatz eta itxaropentsuak eskaintzen dituen konbinazioa.

Esperientzia bi zatitan banatzen da: ikasgelan saio bat kontzeptuak ezagutzeko, eta irteera bat jaitzubiako paduretara, non natura protagonista bihurtzen den eta ikasitakoak benetako zentzua hartzen duen.